

# KOSTUEN EGITURA

Lehenik eta behin, kostu finko hauek izango ditugu: Aplikazioaren hosting-a, 10.200€-koa. Horretaz gain, lana egiteko lokalaren alokairua edukiko dugu 900 eurokoa. Baertatik egingo dugu lan eta hor erabakiko ditugu gure ideia nagusiak. Gainera, punta-puntako ordenagailuak izango ditugu. Hauen prezioa 4000 eurokoa izango da guztira. Azkenik, wifi-a ordaindu beharko dugu. Hilero 25 euro ordainduko dugu wifiarengatik. Gure taldekideon soldata 2000 eurokoa izango da eta kontratatzen ditugun jendea 1200 eurokoa izango da.

Lokaleko argia eta ura ere kostu aldakorretako bat izango dira.

Honetaz gain, gure enpresako kide bakoitzak 1000 euro inbertituko ditugu gure enpresa aurrera eramateko eta 5000 euroko mailegu bat eskatuko diogu BBVA bankuari.

